

## **BETERRI-BURUNTZAKO UDALEN ELKARLAN SORGUNEEN EREMUETARAKO SARRERA-PROZEDURA ETA HORIEN FUNTZIONAMENDUA EZARTZEN DUEN ETA ESPAZIO HAUEN PROGRAMAREN FUNTZIONAMENDUA FINKATZEN DUEN ERREGELAMENDUA.**

### **1. ARRAZOIEN AZALPENA**

Beterri-Buruntza Udalen helburua da, beren ekintzailtza-zerbitzuaren bitartez, gure lurraldera enplegua eta jarduera ekonomikoak ekarriko dituzten enpresa berriak eratu daitezela sustatzea, gure lurraldearen premia sozio-ekonomikoei erantzungo dieten ekonomia sozialeko jarduera berriak sustatzea eta pertsona sortzaileen, ekintzaileen eta enpresen sare bat suspertzea.

Horri begira, zenbait laguntza-zerbitzu eskainiko ditu jarduera berriak abian jartzeko eta enpresei hazi eta finkatzen laguntzeko; programa horien bidez ekonomia sozialeko jarduerak sustatuko dituzte eta elkarlan sorguneko eremuak ahalbidetuko dituzte, ekintzaileei nahiz enpresei zuzenduak.

### **2. ERREGELAMENDUAREN XEDEA.**

Erregelamendu honen xedea da, hain zuzen ere, Beterri-Buruntza esparruan Elkarlan Sorguneeen programarako xedatzen diren lokal eta eremuak erabilera-araubide partekatuan lagatzea eta horien funtzionamendu-erregimena arautzea.

Erregelamendu honen xedea da, halaber, Beterri-Buruntza esparruan aplikatuko den elkarlan sorguneeen programaren funtzionamendu-erregelamendua finkatzea.

### **3. ELKARLAN SORGUNEEN PROGRAMAREN HELBURUAK.**

Beterri-Buruntza Udalen Elkarlan Sorguneeen programaren bitartez eskualdeko zentroen sare bat sortzea sustatu nahi da, ekimen publiko-pribatuaren bidez, eta horren bitartez, eremu horiek erabiliko dituzten pertsonen arteko trukeak eta elkarlana bultzatuko dira.

Adimen kolektiboko eremu fisikoak izango dira, eta bertan, lankidetzako komunitateak sortuko dituzte eta denboraren banku baten bitartez ideiak, zerbitzuak eta ezagutzak trukatu daitezela sustatuko dute eremu horiek erabiltzen dituztenen eta beren ingurunearen arteko lankidetzako ekonomia indartu dezaten.

Administrazio publiko eskudunek eta erabiltzaileek elkarrekin kudeatuko dituzte eremu hauek. Parte-hartzaileek eremuaren eta proiektuaren gidaritzan esku har dezatela lortu nahi da. Erabiltzaile bakoitzak bere proiektuaren garapenean lan egingo du, bere denboraren ordu kopuru jakin bat komunitatearen zerbitzura jartzeko konpromisoarekin, proiektuaren gidaritzza-eginkizunetarako norberak bere borondatez zerbitzu batzuk eskaini ditzan.

### **4. ELKARLAN SORGUNERAKO XEDATUTAKO EREMUAK**

Gaur egun, Elkarlan Sorgunerako prestatuta dagoen eremua erregelamendu honetako 1. eranskinean adierazitakoa da. Beterri-Buruntzako Udalek handitu egin ahal izango dute, etorkizunean, programa honetarako xedatzen dituzten eraikin, lokal eta eremuen sarea.

### **5. PROGRAMAREN BIDEZ ESKAINIKO DIREN ZERBITZUAK.**

**5.1.** Elkarlan Sorguneeen Programaren erabilerari gehitzen joango diren eremu fisikoetan (1. eranskina) erabiltzaileek honako baliabide hauek edukiko dituzte:

- 1. eranskinean horietako bakoitzarentzat deskribatzen diren eremuak erabili ahal izango dituzte, irekita dauden ordutegiaren barruan.
- Interneteko konexioa.
- Kopiagintza-zerbitzua.
- Elektrizitatea.
- Girotze-sistema.
- Instalazioen garbiketa- eta mantentze-lanen zerbitzu bat.
- Segurtasun-sistema.

## 5.2. Beterri-Buruntzako Udalen ekintzailtza-zerbitzua.

Beterri-Buruntza Udalek egun eskaintzen dituzten zerbitzuak erabili ahal izango dituzte Elkarlan Sorguneko programako erabiltzaile guztiek. Proiektu bakoitza zein sarrera-programatan dagoen kontuan izanik, erabiltzaileek hitz eman beharko dute zerbitzu horietakoren batean parte hartuko dutela. Programaren fase guztietan, egiten dituzten txostenetan, datuen bilketan, estatistiketan eta abarretan generoaren ikuspegia hartuko dute kontuan. Jarraian, zerbitzu horietako batzuk deskribatuko dira:

1. EKINEAN. Enpresak sortzeko aholkularitza- eta prestakuntza-zerbitzua: ideia batetik abiatuta proiektu bat garatzea, enpresaren bideragarritasun-plana prestatzea eta martxan jartzea (finantzaketa, lege-izapideak, dirulaguntzak, hizkuntza-kudeaketa eta berdintasun-irizpideak).

2. KOOPFABRIKA. Ekintzaile sozialei zuzendutako programa: prestakuntza teoriko eta praktikorako kapsulak eta proiektu sozialak abian jartzeko tutoretza.

3. ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK. Eskualdeko enpresa-ehunaren heldutasuna, garapen integrala eta erantzukizun soziala landuz toki-garapena sustatzea, eta era horretan, enpresa-ehunaren lehiakortasuna, iraunkortasuna eta berrikuntza hobetuko da.

### 4. ELKARLANERAKO EREMUA.

- Eremua eta komunitatea dinamizatzea: dinamika hauen bidez komunitatearen barruan loturak sortu, elkarlana sustatu eta eremu horietako parte-hartzaileen premiak asetu nahi dira. Dinamizatzaileak euskararen maila kontuan hartuko du norbanakoen arteko harremanetan. Taldeko dinamika guztiak euskaraz izango dira, betiere parte-hartzaileek gutxieneko ulermen maila bat badute. Euskaraz egiterik ez badago, dinamizatzaileak neurriak hartuko ditu parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak bermatu daitezen. Beharrezkoa denean (parte-hartzaile guztiek euskara ulertzen ez dutenean) Hernaniko Udalaren aldibereko itzulpen-zerbitzua erabiltzeko aukera izango dute.

- Ikastaroak eta ekitaldiak: Elkarlanerako eremuak lankidetzako komunitate aktiboak izango dira, eta esperimentazioa sustatu eta bultzatuko dute. Ikasketa eta laguntza kolektiborako laborategiak izango dira, eta bertan, ikastaroak, tailerrak eta jarduerak programatuko dituzte proiektuen garapena sustatzeko xedez, baina eremu horien onuradun diren pertsonen ez ezik, Beterri-Buruntza eskualde osoa barne hartuko duen enpresa nahiz gizarte arloko egitura zabalago bati ere zuzenduko zaizkio. Programaren fase guztietan (sorkuntza, garapena, finkapena eta zeharkako harremanak) erabiltzaileek jasotzen dituzten ikastaroetan eta laguntzetan euskararen erabilera sustatuko da. Honako bi eremu hauen bitartez gutxienez jorratuko da sustapen-lan hori: a) euskarazko ikastaroak eskainiko zaizkie gutxieneko ulermen maila dutenei, eta b) ikastaro-eskaintza horren barruan, hizkuntzak egoki kudeatzeko ikastaroak ere eskainiko dira. Jardueren agendan, ikastaroak zein hizkuntzatan egingo diren zehaztu eta adieraziko da, eta aukera dagoen guztietan, jarduera hori euskaraz egingo da.

- Networking: elkarlan sorgune horiek lankidetzaz sareak sortuko dituzte eskualdeko zenbait eragile sozioekonomikorekin. Beren ingurune hurbilari ere zuzenduko zaizkio, eta herri bakoitzeko herritarrekin eta tokian tokiko elkarte-ehunarekin ere harremanak finkatuko dituzte. Zabaldu nahi dira ezagutzak eta harreman profesionalen sarea, sor litezkeen sinergien kantitatea eta kalitatea areagotzekin.

Eremu guztietan eta antolatzen diren ikastaro eta jarduerak guztietan, berdintasunaren printzipioa hartuko dute kontuan: berdintasuneko tratua eskainiko da; aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta desberdintasuna errespetatuko dira; genero-ikuspegia txertatuko da; ekintza positiboa; eta sexuen araberako rol eta estereotipoak desagertuko dira.

## 6. DEIALDIA.

### 6.1. Zerbitzuaren onuradunak.

Ekintzaileak, freelance-ak, autonomoak, GKEak, elkarteak, ikasleak, eratutako enpresak, eta abar.

### 6.2. Sarrera-programa.

Jarraian, hiru sarrera-programak deskribatuko dira, proiektu bakoitza aurkitzen den garapen-faseari egokituz:

#### a) Sarrera: ideiatik proiektura.

Onuradunak: enpresa-ideiaren bat edo gizarte-ideiaren bat duten eta proiektu baten bidez gauzatu nahi duten pertsona fisiko guztiak, eta halaber, proiektu estrategiko sortu berri bat abian jarri nahi duten enpresa guztiak.

Iraupena: 6 hilabete.

Onuradunen konpromisoak:

- Ideiatik proiektura igarotzea.
- Bideragarritasun-plana Beterri-Buruntza Udalen metodologiaren arabera garatzea.
- Elkarlan Sorguneko komunitatean eta bere dinamiketan denbora bankuaren bitartez parte hartzea.

#### b) Garapena: proiektutik enpresara.

Onuradunak: enpresa-proiektu bat edo gizarte-proiektu bat eta bere bideragarritasun-plana duten pertsona fisiko guztiak.

Iraupena: 6 hilabete.

Konpromisoak:

- Proiektutik jarduerak ekonomikoan hasiera igarotzea.
- Ekonomia-jardueren gaineko Zergan, Gizarte Segurantzako dagozkion erregimenetan eta nahitaezko beste erregistro batzuetan alta ematea.
- Elkarlan Sorguneko komunitatean eta bere dinamiketan denbora bankuaren bitartez parte hartzea.

#### c) Finkapena: Jarduera ekonomikoa finkatzea.

Onuradunak: profesionalak, enpresak eta eratutako erakundeak.

Iraupena: 4 urte.

Konpromisoak:

- Jarduera ekonomikoa finkatzea.
- Denbora bankuaren bitartez komunitatean eta bere dinamiketan integratzea.
- Enpresei zuzentzen zaizkien Beterri-Buruntzako udaletako eta KoopFabrika programetan parte hartzea.

## 6.3. Betekizunak.

### 6.3.1. SORRERA:

- Administrazio publiko guztiakin dituzten zerga arloko betebeharren ordainketan egunean egotea, baita Gizarte Segurantzarekin dituzten betebeharretan ere. Parte hartzen duten udalekin zerga alorrean duten egoera ofizioz egiaztatuko du tokian tokiko administrazio eskudunak.
- Etorkizuneko enpresaren helbidea eskualdeko udalerrietako batean finkatzea (sozietate-helbidea, zerga-helbidea edo jarduera ekonomikoarena).
- Sei hilabeteko epe barruan negozio-plan bat prestatzea, Beterri-Buruntza Udalek erabilitako metodologiaren arabera, edo KoopFabrika zerbitzuan parte hartzea.
- Lankidetzarako eremuan eta horren ekimenetan parte hartzea, denbora bankuaren erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritik.

### 6.3.2. GARATZEA:

- Beterri-Buruntza Udalek erabilitako metodologiarekin bat etorritik prestatutako Negozio Plan bat edukitzea, eta beste erakunde batekin eginez gero, Beterri-Buruntza Udalek proposatutako metodologiara hura egokitzea.
- Administrazio publiko guztiakin dituzten zerga arloko betebeharren ordainketan egunean egotea, baita Gizarte Segurantzarekin dituzten betebeharretan ere. Parte hartzen duten udalekin zerga alorrean duten egoera ofizioz egiaztatuko du tokian tokiko administrazio eskudunak.
- Etorkizuneko enpresaren helbidea eskualdeko udalerrietako batean finkatzea (sozietate-helbidea, zerga-helbidea edo jarduera ekonomikoarena).
- Sei hilabeteko epe batean jarduera ekonomikoari Foru Ogasunean alta emateko eta langileei dagozkien Gizarte Segurantzako erregimenetan alta emateko nahitaezko izapideak betetzea.
- Lankidetzarako eremuan eta horren ekimenetan parte hartzea, denbora bankuaren erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritik.

### 6.3.3. FINKATZEA:

- Sozietateak, ondasun-erkidegoak eta erakundeak behar bezala eratuta eta dagozkien erregistro ofizialetan erregistratuta egongo dira.
- Ekonomia-jardueren gaineko Zergan alta emanda egon eta beren helbidea eskualdeko udalerriren batean eduki behar dute (sozietate-helbidea, zerga-helbidea edo jarduera ekonomikoarena).
- Administrazio publiko guztiakin dituzten zerga arloko betebeharren ordainketan egunean egotea, baita Gizarte Segurantzarekin dituzten betebeharretan ere. Parte hartzen duten udalekin zerga alorrean duten egoera ofizioz egiaztatuko du tokian tokiko administrazio eskudunak.
- Espazioaren lagapena eskatzeko arrazoi den enpresa-jarduera beste higiezin batean ez egitea, higiezin hori negozio-linea berri bat irekitzeko ezinbestekoa gertatu ezean.
- Beren jarduera nagusia 81. Taldean aurreikusitako ekonomia-jardueren gaineko zergaren multzo edo epigrafeetan barneratutakoren bat ez izatea (Finantza erakundeak), irabazi-asmorik gabeak izan ezean.
- Administrazioen barruko ente, sozietate publiko edo entitateak ez izatea.
- Azken hiru ekitaldi ekonomikoetako egoera balantzea eta emaitzen kontua edo sarrera eta gastuen erregistroa aurkeztea.
- Negozio plana Beterri-Buruntzako Udalen ekintzailtza-zerbitzuak erabilitako metodologiaren arabera egokitzea.
- Denbora bankuaren erregelamenduan xedatutakoari jarraiki, komunitatean eta bere dinamiketan parte hartzea, baita enpresei zuzentzen zaizkien Beterri-Buruntzako Udalen eta KoopFabrikaren programetan ere.
- Plantilla eta, beraz, baita lan-eremua ere handituz gero, etorri berriek beren gain hartu

beharko dituzte komunitatean eta bere dinamiketan parte hartzeko betebeharrak, denbora bankuaren erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorriz.

Betekizun guztiak bete beharko dira. Fase batetik bestera igarotzeko, fase bakoitzeko betebeharrak bete behar dira lehenik. Europar Batasunaren 1303/2013 erregelamenduan jasotako adierazpenei jarraikiz, enpresetarako eta enpresak sortzeko proiektuetarako eskualdeak dituen laguntza-baliabideen bitartez, sentsibilizazio-lan bat egingo dute garapen iraunkorarekin eta ingurumena babestu eta hobetzea sustatzearekin loturiko jardunbide egokien inguruan, eta halaber, enpresen barruan bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzearekin loturiko ekintzen inguruan. Era berean, bermatuko dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna (emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurri zehatzak eta baliabideak jarriz), Elkarlan Sorguneko eremuan garatzen diren ekintza guztietan euskararen erabilera sustatuko dute, eta sexu, arraza edo jatorri etniko, erlijio edo sinesmen, aniztasun funtzionala, adin edo sexu-orientabidean oinarritutako diskriminaziorik ez dagoela bermatuko dute.

#### **6.4. Aurkeztu beharreko agiriak.**

Proiektuaren oinarriak onesten diren egunetik aurrera eskaera-orriak eskatzaileen esku egongo dira Beterri-Buruntza Udalen bulegoetan eta webguneetan.

Eskaera-orrian sexuaren aldagaia adieraziko da eta hizkuntza ez-sexista erabiliko dela bermatuko da.

Elkarlan Sorguneko programan izena emateko, euskaraz edo bi hizkuntzetan idatzitako eskaera-orria erabiliko da. Erabiltzaileak, eskaera-orri horretan, besteak beste, bere euskara maila zein den zehaztuko du. Horretarako, hiru aukera hauetako bat hautatuko du:

- Ongi moldatzen naiz euskaraz (idatziz eta ahoz ere).
- Euskara ulertzen dut, baina ez dut euskaraz ez idazten ezta hitz egiten ere.
- Ez dakit euskaraz.

Sarrera-eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

##### **6.4.1. SORRERA.**

- Elkarlan Sorguneko sarrera-eskabidea behar bezala betea.
- Proiektuko parte-hartzaileen edo sustatzaileen nortasun agiri nazionalaren kopia.
- Proiektuko parte-hartzaileen edo sustatzaileen *Curriculum Vitae*.
- Jatorrizko ziurtagiriak egiaztatzeko zerga arloko betebeharrak dituzten Administrazio publiko guztiekin ordainketan egunean daudela, baita Gizarte Segurantzarekin dituztenetan ere, egunean daudela adierazten duten jatorrizko egiaztariak.
- Eratu berriak diren proiektuak izanez gero, ekonomia-jardueren gaineko zergan eta dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenean emandako altaren kopia.
- Beterri-Buruntza Udalek erabilitako metodologiaren arabera sei hilabeteko epe batez Bideragarritasun Plan bat garatuko dutela, eskatutako proiektua eskualdean instalatuko dutela eta lankidetzaren eremuan eta horren ekimenetan denbora bankuaren bitartez parte hartuko dutela dioen idatzizko konpromiso irmoa.

##### **6.4.2. GARATZEA.**

- Elkarlan Sorguneko sarrera-eskabidea behar bezala betea.
- Proiektuaren parte-hartzaileen eta sustatzaileen nortasun agiri nazionalaren kopia.
- Proiektuko parte-hartzaileen eta sustatzaileen *Curriculum Vitae*.
- Administrazio publikoekin dituzten zerga arloko betebeharren ordainketan, baita Gizarte Segurantzarekin dituztenetan ere, egunean daudela adierazten duten jatorrizko egiaztariak.
- Negozio Plana aurkeztea. Beterri-Buruntza Udalen ekintzailatza-zerbitzuen gainbegiradapean egin ez baldin bada, metodologia horretara egokituko dela dioen idatzizko konpromiso irmoa.

- Enpresa abian jarriko dutela, hitzarmena sinatu eta sei hilabete egin aurretik ekonomia-jardueren gaineko zergan eta dagokien Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emango dutela eskainitako ereduari jarraiki eskatutako proiektua eskualdean instalatuko dutela eta lankidetzaren eremuan eta bere ekimenetan parte hartuko dutela dioen idatzizko konpromiso irmoa.

#### 6.4.3. FINKATZEA.

- Elkarlan Sorguneko sarrera-eskabidea, behar bezala bete.
- Proiektuko bazkideen eta parte-hartzaileen nortasun agiri nazionalaren kopia.
- Proiektuko parte-hartzaileen eta sustatzaileen *curriculum vitae*-ak.
- Finantza entitateak egindako egiaztagiriaren edo beste agiri baliokide baten bitartez eskainitako banku-datuak.
- Helbidea eskualdeko herriren batean edukitzea (sozietate-helbidea, zerga-helbidea edo jarduera ekonomikoarena).
- Identifikazio fiskalaren txartelaren kopia.
- Sozietateak, ondasun-erkidegoak edo erakundeak izanez gero, pertsona eskatzailearen ordezkari-ahalmena egiaztatzen duen agiriaren kopia.
- Sozietate zibilak, ondasun-erkidegoak, erakundeak edo merkataritza-sozietateak izanez gero, eraketa-eskrittaren kopia. Azken kasu honetan, eskrittarek Merkataritza Erregistroaren izapidea eraman beharko dute.
- Enpresako langile bakoitzaren Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean edo dagokion mutualitate profesionalean emandako alta-agiriaren kopia.
- Enpresak zerga arloko betebeharrak dituen udal edo Herrialdeetako Administrazio publiko guztiek egindako jatorrizko ziurtagiriak, betebeharrak horietan egunean dagoela egiaztatuz.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan emandako altaren kopia eta jarduera ekonomikoan alta-epea egiaztatzen duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren ziurtagiria.
- Eskualdeko teknikarien laguntzarik gabe eraturako enpresak izanez gero, azken hiru ekitaldi ekonomikoetako egoera balantzea eta sarrera eta gastuen emaitzen kontua.
- Negozio plana aurkeztea. Beterri-Buruntza Udalen ekintzailetza-zerbitzuen gainbegiradapean egin ez baldin bada, metodologia horretara egokituko dela dioen idatzizko konpromiso irmoa.
- Komunitatean eta bere dinamiketan parte hartzeko konpromisoa.
- Plantilla eta, beraz, lanerako eremua handituz gero, barneratu berriek dagokien sarrera-eskabidea, NANaren kopia eta komunitatean eta bere dinamiketan parte hartzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute.

#### 6.5. **Eskabideak aurkezteko epea eta tokia:**

Eskabideak, termino guztietan behar bezala beteak eta aurreko apartatuak aipatzen dituen arauzko agiri guztiekin batera, administrazio publiko eskudunetan aurkeztu beharko dira. Interesatuek eskabidea aurkezteak esan nahi du aipatutako oinarrien edukia onartzen dutela.

Urtean 3 deialdi egingo dira modalitate guztietarako: bat urtarrilean, bestea maiatzean eta azkena urrian, eta finkatutako lehentasun eta hautapen-irizpideen arabera balioetsiko dira proposamenak.

Kasu guztietan, aurkeztutako eskabidea egoki ulertu eta ebaluatzeko beharrezko iruditzen zaizkion agiri eta informazio guztiak eskatu ahal izango dizkie administrazio-batzordeak erregelamendu honetan aurreikusitako onuren eskatzaileei. Areago, elkarrizketa bat ere egin dezake haiekin, proiektua hobeto ulertzei begira.

Eskabideak jaso ondoren, horiek oso-osorik egoki beteak ez badaude, edo beharrezko agiriekin batera aurkeztu ez badira, interesatuei eskatuko zaie zuzendu dezatela hutsegitea edo aurkeztu ditzatela arauzko agiriak 10 laneguneko epe batean, eta adieraziko diete, horrela egiten ez badute, eskabide horri uko egiten diotela ulertuko dutela, eta beste izapiderik gabe, artxibatu egingo dute espedientea, eta administrazio-batzordea ez da behartua egongo eskabide horri buruzko berariazko ebazpenik ematera.

Era berean, eskatzaileek bermatu egin beharko dute hizkuntza ez-sexista erabiliko dutela agiri guztietan, eta dokumentazio hori edozein hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute.

## **6.6. Hautatze-irizpideak.**

Eskabideak **100 puntuko gehieneko puntuazioaren** gainean balioetsiko dira, honako irizpide hauen arabera:

- Proiektuaren ideia edo negozio-plana (gehienez ere 25 puntu): bideragarritasun planaren analisiaren bitartez espero diren itzulketen neurketa. Negozio-ideiaren edo negozio-planaren koherentzia, proiektuaren bideragarritasuna eta iraunkortasun-ahalmena balioetsiko dira. Eskalagarritasun eta erreplikagarritasunerako ahalmena eta kalitateko enplegua sortzeko ahalmena balioetsiko dira.
- Erantzukidetasunaren eta gizarte-berrikuntzaren maila (gehienez ere 25 puntu): gizartean aldaketa edo eraldaketa eragiteko gaitasuna. Kolektibo jakin baten edo komunitatearen (oro har) intereserako ekarpen baliotsuak egitea, lortu nahi den eraginaren kantitate eta kalitatea eta proiektuaren eraldaketa-ahalmena balioetsiko dira, berdintasunean eragin positibo bat bermatuz.
- Ekintzaile taldearen prestakuntza eta esperientzia (gehienez ere 20 puntu): taldearen prestutasuna, lankidetzarako borondatea eta proiektuaren sektore ekonomikoan duen prestakuntza eta esperientzia balioetsiko dira.
- Proiektuak Beterri-Buruntza Udalen Elkarlan Sorguneekin duen koherentzia (gehienez ere 20 puntu): proiektu honek Beterri-Buruntza Udalen helburuekin eta metodologiarekin duen koherentzia maila, proiektuak ekarpenak egiteko duen ahalmena eta dagoeneko ezarrita dauden proiektuekin duen osagarritasuna balioetsiko dira.
- Proiektua KoopFab programan baldin badago edo bertan parte hartu badu: 10 puntu.

Eskabide guztiei erantzungo zaie, baina eremu horietan sartzeari edo, hala egokituz gero, itzarotezterrendan sartzeari honako lehentasun-irizpide hauen arabera erabakiko da:

- Eskualdeko udalerriren batean errolatuta dauden ekintzaileak, lehentasunez (jarduera ekonomiko bati ekiteko konpromisoa hartua dutela).
- Enpresa sortu berriak.
- Egoera ekonomiko ahulean aurkitzen diren enpresak.
- Elkarrekin.

## **6.7. Eskabideak balioestea.**

Administrazio-batzordeak balioetsi eta izapidetuko ditu eskabideak. Banakako berariazko jakinarazpen baten bitartez ebatziko dira eskabide horiek. Ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie, eta hala egokituz gero, dagokion hitzarmena sinatzeko epea zein den adieraziko zaie.

## **7. HITZARMENA FORMALIZATZEA.**

Eremuak okupatu aurretik, eta administrazio-batzordeari arauzko agiriak eman ondoren (bermea eta erantzukizun zibileko aseguru ere barne), lagapen-hartzaile bakoitzarekin hitzarmen bat izenpetuko da eta bertan eremu horien erabilera-lagapena arautuko duten baldintza orokorrak nahiz baldintza bereziak zehaztuko dira.

Erabiltzaileei eskainiko zaizkien agiriak euskaraz idatziak egongo dira (hitzarmenak, araudiak, jakinarazpenak, ebazpenak, aktak...). Erabiltzailearen batek euskaraz ulertzen ez badu, agiriaren bertsioko elebiduna emango zaio, edo ahozko zein idatzizko laburpen bat eskainiko zaio.

### **7.1. Egonaldiak:**

#### **7.1.1. SORRERA.**

Sorrera-programako kideak Elkarlan Sorgunean sei hilabetez egon ahal izango dira, eremu horretara sartzeko ebazpena jakinarazten zaien dataren hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Sei hilabete igaro ondoren, garapen-programan sartu ahal izango dira, horren barruan sartu ahal izateko baldintzak betetzen badituzte.

### 7.1.2. GARATZEA.

Garapen-programako kideak Elkarlan Sorgunean sei hilabetez egon ahal izango dira eremu horretara sartzeko ebazpena jakinarazten zaien dataren hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Sei hilabete igaro ondoren, finkapen-programan sartu ahal izango dira, horren barruan sartu ahal izateko baldintzak betetzen baldin badituzte.

### 7.1.3. FINKATZEA.

Finkapen-programako kideak Elkarlan Sorgunean 4 urtez egon ahal izango dira eremu horretara sartzeko ebazpena jakinarazten zaien dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Administrazio-batzordeak onetsitako salbuespenezko egoeretan bakarrik luzatu ahal izango dira hitzarmenak arestian xedatutakoa baino denbora luzeagoan, esate baterako, eremu horietan sartzeko eskaerarik ez badago.

FASEA Fase	SORRERA Creación	GARAPENA Desarrollo	FINKAPENA Consolidación
EREMUA Espacio	Elkarlan Sorgunea Coworking	Elkarlan Sorgunea Coworking	Elkarlan Sorgunea Coworking
IRAUPENA Duración	6 hilabete 6 meses	6 hilabete 6 meses	4 urte 4 años
GEHIENEO IRAUPENA GUZTIRA Duración total máxima	5 urte 5 años	4 urte eta erdi 4 años y medio	5 urte 5 años

## 8. PREZIOAK

### 8.1. Ordaindu beharreko kuotak.

Elkarlan Sorguneak ordaintzeko bi modu izango dira: alde batetik, onuradunek ordu-ekarpen bat egin beharko dute, dela lankidetzaz bidez edo dela eremuaren eta bere dinamiken onurarako, eta beste alde batetik, kuota ekonomiko bat ordaindu beharko dute.

Eskatutako ekarpen-orduen eta ordaindu beharreko kuota ekonomikoen artean oreka bat egon behar du. Elkarlan Sorguneak abian jartzeko fase desberdinetan onuradunei eskatutako ekarpen-orduak aldatu egingo direnez gero —hasieran ordu gehiago eskatuko zaizkie handik bi urtetara baino— ordaintetarako egiteko bi modu proposatu dira Elkarlan Sorgune horiek abian jarriko diren epealdi bakoitzaren arabera egokituko direnak:

#### A EPEALDIA

Elkarlan Sorguneen jarduera hasi eta lehen hiru urteetan.

- EKARPEN-ORDUAK: 6 ORDU hilean pertsonako, denbora bankuaren erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritik.
- KUOTA EKONOMIKOAK: 0 euro.

#### B EPEALDIA

Elkarlan Sorguneak abian jarri eta hiru urte igarotzen direnetik aurrera.

- EKARPEN-ORDUAK: Hilean eta pertsonako, denbora bankuaren erregelamenduan ezarritakoa:
- Sorrera-programa: 6 ordu.
- Garapen-programa: 6 ordu.



- Finkapen-programa:
  - 1. urtea: 6 ordu.
  - 2. urtea: 5 ordu.
  - 3. urtea: 4 ordu.
  - 4. urtea: 3 ordu.

- KUOTA EKONOMIKOAK:

		SORRERA	GARAPENA	FINKAPENA			
ELKARLAN SORGUNEAK	PERTSONAK	0	0	0	20	30	40
PREZIOAK PERTSONA/HILABETEKO	AUTONOMOAK ENPRESAK ELKARTEAK	0	0	0	30	40	50

## 9. KOMUNITATEAREN FUNTZIONAMENDUA.

### 9.1. Erabilera-ordutegiak.

Hernaniko Elkarlan Sorguneak ordutegi hau izango du: astelehenetik igandera 07:00etatik 22:00etara.

### 9.2. Denbora bankua.

Elkarlan Sorguneen onuradunek zenbait zerbitzu eskaini eta jasoko dituzte denbora bankuaren bitartez. Eskaini behar izango dituzten zerbitzuak eremu horien kudeaketarekin eta itzulketa sozialarekin loturik egongo dira —jarduerak, tailerrak, ikastaroak, ekitaldiak, proiektuak eta abar—, eta azkenik, ekintzaileen artean eta Beterri-Buruntza Udalak sareko profesional desberdinen artean sortzen diren lankidetzekin ere bai. Denbora bankuaren funtzionamendua xehetasun handiagoz zehaztuko dute bai batzarrak eta bai kudeaketa-batzordeak ere, prozesu parte-hartzaile baten bitartez. Prozesu horren bidez gida bat sortuko da, eta denbora bankuaren bitartez antolatutako jardueretan kontuan hartuko da hizkuntza-kudeaketa.

### 9.3. Gobernu-organismoak, kudeaketa-organismoak eta batzarra.

Eskualdeko Elkarlan Sorguneak administrazio-batzordearen eta erabiltzaileen artean elkarrekin kudeatutako zerbitzu bat izango dira, eta denek haren gidaritzan esku hartu beharko dute. Kideen arteko kudeaketa partekatua eta erantzulea sustatu nahi baita, erakunde horri emanegitua horizontal, garden, ireki eta lankidetzan oinarritutakoa.

Organo horiek sexuen aldetik osaera orekatua edukiko dute, eta bi sexuetako bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza edukiko duela bermatuko dute. Organoak lau pertsonak edo gutxiagok osatzen baldin badituzte, bi sexuek ordezkatuta egon beharko dute.

Kudeaketa eta administrazioko organoek neurriak hartuko dituzte euskara erabili dadila bermatzeko eta sustatzeko. Laneko hizkuntzari dagokionez, kide guztiek euskara ulertzen baldin badute, euskaraz jardungo dute. Hori ezinezkoa baldin bada kideren batek euskaraz ulertzen ez duelako, organoek neurriak hartuko dituzte organoetako kideek, Elkarlan Sorguneko erabiltzaileek eta erakundeek euskaraz lan egiteko duten eskubidea errespetatua izan dadin.

#### Gobernu organoa (administrazio-batzordea):

Administrazio-batzorde hau Elkarlan Sorguneen dinamizatzaileak, eskualdeko ekintzailetzako teknikariak eta udal bakoitzeko arduradun tekniko batek osatzen dute, eremu horiek udal titulartasunpekoak diren bitartean. Eskualdearen Garapenerako Agentzia eratzen den unean, eremu horien erabilera Garapen Agentziari lagatzea aztertuko da, eta administrazio-batzorde horretan Agentziako ordezkarik batek parte hartuko du udal ordezkarien ordez. Batzorde hau hiru

hilean behin elkartuko da gutxienez.

Lan honetan aipatzen joan garen administrazio arloko kudeaketa-lanak arautzea izango da haren eginkizuna, eta hala, besteak beste, zeregin hauek beteko ditu: sarrera-eskabideen baheketa eta onuradunen onarpena, Elkarlan Sorguneetarako xedatutako aurrekontuaren onespina, proposatutako konektoreen aukeraketa, etab.

#### **Batzarra:**

Elkarlan Sorguneetako zentroetan eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko organoa da batzarra, eta bertan, ekintzaileek eta elkarlan sorguneko teknikariak parte hartuko dute. Bertan parte hartzen dutenei ardura zaizkien gai guztiak eztabaidatu eta komentatuko dira Batzarrean. Batzordeak soluzioak, alternatibak eta ekarpenak proposatu ditzake elkarrekin Komunitatearen etorkizuna eraiki ahal izateko. Batzarrak egingo ditu bilerak gutxienez hilean behin. Komunitate osoaren topalekua da batzarra; hau da, erabiltzaile guztiek parte hartzea eta proiektu/eremu horren kide sentitzea da helburua. Era horretan, komunitate honetako parte-hartzaile bakoitzak boto bat izango du.

Batzarraren eginkizunak: eremu honetan parte hartzen dutenei ardura zaizkien gai buruzko iritziak jasotzea eta horiek eztabaidatzea, eremuetako eta proiektuko eguneroko arazoak konpontzea, eremuaren eta proiektuaren funtzionamenduari buruzko jarraipen egokia egitea eta zerbitzua hobetzeari begira egokitzat jotzen diren estrategiak garatzea.

#### **9.4. Hizkuntza-kudeaketa.**

Agiri honetan jasotako irizpideak ez dira estatikoak; eremu eta jarduera berrietarako zehaztu dira. Horrenbestez, beharrezkoa den guztietan berrikusi eta egokitu ahal izango dira. Hizkuntza-kudeaketari dagokionez, agiri horretan arautu gabe geratu den esparruren bat balego, edo konpondu gabeko zalantzen bat balego, Beterri-Buruntzako euskara-zerbitzuetara joko litzateke aholkularitza eskatzeko.

### **10. EREMUEN FUNZIONAMENDUA.**

#### **10.1. Elementu komunen erabilera.**

Beren izaera kontuan izanik, lagapen-hartzaileek erabili eta aprobetxatu ditzaketen guztiak edo erabilera orokorrekoak diren guztiak jotzen dira elementu komuntzat. Lagapen-hartzaileek eskubidea edukiko dute elementu komun horiek erabiltzeko, baina betiere gainerakoek ere erabil ditzatela ezertan eragotzi gabe, administrazio-batzordeak ezartzen dituen arauekin bat etorritik, eta hark ebatziko ditu gai honekin loturik sortzen diren gatazkak. Administrazio-batzordeak Kideen artean sor daitezkeen desadostasunetan bitartekaritza-lanak egingo ditu, arazoa aztertuz eta irtenbide bat proposatuz.

#### **10.2. Elkarlan Sorguneen postuen erabilerarekin loturiko arau orokorrak.**

- Eremuen erabilera erregelamendu honetako 7. puntuan ezarritakoaren baldintzapean geratuko da (lagapenaren hitzarmena formalizatzea).
- Eremuak erabiltzeko eskubidea norberarena eta besterenezina da, eta beraz, ezin daiteke ez akuratu eta ez laga, ez osorik eta ez horren zati bat, ezta doan edo aldi baterako ere.
- Modulu/eremuaren lagapena jakinarazi eta handik hilabete batera gehienez ere izenpetuko da lagapen-hitzarmena.
- Eremuaren lagapena jakinarazten den egunetik kontatzen hasi eta gehienez ere hilabeteko epean hasi beharko du bere jarduera lagatako eremu horretan.
- Modulu/eremu hori erabilera-egoera egokian mantendu beharko dute.
- Elkarlan Sorgunearen barrualdean ezin izango da jarri edo utzi lurzoruen eta hormen kargamuga gainditzeko duen inolako objekturik.
- Debekatua dago Elkarlan Sorguneko eremuaren gainerako erabiltzaileei eragozpenak eta zarata sortuko dizkien edozein elementu erabiltzea edo bertako instalazioetan edo

elementuetan kalteak eragitea, eta halaber, edozein animalia edo material arriskutsu barneratzea.

- Elkarlan Sorgunean ez da gutxieneko presentziarik eskatuko, baina bai erabilera arduratsu bat, eta beraz, erabiltzailearen baten iritziz ez bada eremu hori eraginkortasunez erabiltzen, zerbitzuko koordinatzaileei jakinaraziko zaie gertaera hori, beste erabiltzaile bati laga ahal izateko eta eremu hori eta bertako zerbitzuak horien beharra duten pertsona kopururik handienak erabili ahal izateko.
- Era berean, ordutegiak, erabilera, garbiketa orokorra eta eremuko eta eraikineko gainerako erabiltzaileen lana errespetatu daitezela exijituko da.
- Dagokion moduluan/eremuan egonaldia amaitu ondoren, onuradunek erretiratu egin beharko dituzte bertan dituzten ondasun guztiak. Hori egiten ez badute, administrazio-batzordeak ondasun horiek baztertu ahal izango ditu, eta egonaldia amaitzen denetik 3 hilabeteko epea igaro ondoren, horiek suntsitzeari ekin diezaioke.

### **10.3. Mantentze-lanak eta garbiketa.**

- Elkarlan Sorguneko erabiltzaileek une oro funtzionamendu- eta apaindura-egoera onean eduki behar dituzte lagatako eremuak, altzariak eta azalerak, baita bertako ekipamenduak ere. Erabiltzailearen jarduerak eremuaren egitura-elementuetan, instalazio orokorretan, erabilera komuneko guneetan edo altzarietan eragiten dituen kalte edo hondamenak horien eragile zuzena den erabiltzaileak konponduko ditu bere kontura. Beste alde batetik, erabiltzaileek erraztu egingo dituzte erabilitako eremuaren garbiketa-lanak.

### **10.4. Segurtasuna.**

- Eremu bakoitzaren segurtasuna dagozkion lagapen-hartzaileen erantzukizuna izango da. Udalak ez du erantzukizunik hartuko aretoan uzten diren objektuen gainean. Erabiltzaile guztiek kontuan izan behar dute aretoan uzten duten guztia beren erantzukizuna izango dela.
- Aretoan ezin izango da sartu gauza arriskutsurik, toxikorik edo usaina eragiten duenik, eta oro har, segurtasun eta higiene arauak baimentzen ez duten inolako materialik ere ez.
- Berariaz debekatuta dago arriskutsu, osasungaitz edo kaltegarritzat jo daitekeen edo gainerako okupatzaileen jardueran eragozpenak sor ditzakeen edozein jarduera.
- Berariaz debekatuta dago eremua etxebizitza gisa erabiltzea edota baimenduta ez dagoen beste edozein erabilera egitea.
- Eraikineko segurtasunarekin zerikusia izan dezakeen edo eragin diezaiokeela aurreikus daitekeen edozein egoera edo zentzuzko susmoa berehala jakinarazi beharko zaio Elkarlan Sorguneko koordinazioari.

### **10.5. Onuradunen obligazioak**

- Eskualdeko zentroetako Elkarlan Sorguneko eremu edo moduluetakoa edozein okupatu aurretik, lagapen-hartzaileek Erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu behar dute jarduera burutzeagatik, instalatutako mekanismoen funtzionamenduagatik eta abarregatik okupatutako eremuari, instalazio eta elementu komunei, beste pertsona eta beste onuradun batzuei egin diezazkieketen kalte pertsonalak eta materialak estaltzeko. Horiek, gainera, kontratatutako aseguru-polizaren kopia bat aurkeztu eta dagozkion agirien bitartez urteko ordainsariak ordaindu izana justifikatu beharko dute, hitzarmena indarrean dagoen epealdian.
- Programa honen xedearekin loturiko eginkizunak burutzean eskatzen zaion informazioa eman beharko dute.
- Administrazio publiko eskudunarekin hitzartutako baldintzetan izandako edozein eraldaketaren inguruan informazioa garaiz eman beharko dute.
- Instalazioak ongi erabili beharko dituzte, baita elementu komunak eta banakako izaera duten gutxieneko zerbitzuak ere.
- Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legea bete behar dute.
- Tabakismoaren aurkako Osasun Neurrien abenduaren 26ko 28/2005 Legea bete.
- Eta, oro har, erregelamendu honetan adierazten diren guztiak, baita lagapen-hitzarmen eta

- barne-erregelamenduan adierazten diren betebeharrak eta arauak ere.
- Finkapen-programaren onuradunek urteko kontuen kopia aurkeztu beharko dute urtero.
- Euskara sustatzeko garatutako arau, neurri eta ekintzak beteko dituzte.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde urratsak egiteko garatutako arau, neurri eta ekintzak betetzea.

## 11. HITZARMENAK DESEGITEA.

Eremuen lagapen-hitzarmenak borondatez edo diziplinaz desegin ahal izango dira. Kasu batean nahiz bestean, administrazio-batzordeak txosten bat egingo du horri buruz.

- Borondatez baja ematea: dela denbora-epea amaitzeagatik, edo dela hitzartutako epea baino lehen baja eman nahi izateagatik, kasu batean nahiz bestean behar bezala sinatutako idatzi bat aurkeztu beharko da, eta bertan, horren arrazoiak azaldu, gutxienez baja eman baino hilabete bat lehenago.
- Ez betetzeagatik diziplinaz baja ematea. Horrelako bajak lagapen-hartzaileek beren betebeharrak ez betetzeagatik gertatuko dira eta zenbait arrazoiaren ondorioz izan daitezke:
  - Sarrera-programa bakoitzean bere gain hartutako konpromisoen betebeharrak eta lankidetzaren eremuaren eta denbora bankuaren dinamikak ez betetzea. 6.2 puntuari adierazitako konpromisoak bete beharko dira (sarrera-programan). Sarrera-programan ideiatik proiektura igaro beharko da; bideragarritasun-plana Beterri-Buruntza Udalak metodologiaren arabera garatu eta Elkarlan Sorguneko komunitatean eta bere dinamiketan denbora bankuaren bitartez parte hartu. Garapen-programan ekonomia-jardueren gaineko zergan, Gizarte Segurantzako dagozkion erregimenetan eta nahitaezko beste erregistro batzuetan alta eman beharko da; eta Elkarlan Sorguneko komunitatean eta bere dinamiketan denbora bankuaren bitartez parte hartu. Finkapen-programan komunitatean eta bere dinamiketan barneratu beharko da denbora bankuaren bitartez, eta enpresei zuzendutako Beterri-Buruntza Udalak eta KoopFabrika programetan parte hartu.
  - Kuota ekonomikoa ordaintzeko obligazioak ez bete. Ordaintzen ez bada, aski izango da arau-urratzaileari horretaz ohartaraztea, dagozkion kuota dagozkion epean ordaintzeari uzten dion lehen unean.
  - Barne-erregelamendua behin eta berriz urratzea. Barne-erregelamenduan, beste gauza batzuen artean, eremuaren erabilera-arauak, jokabide-arauak eta denbora bankuaren funtzionamendua jasotzen dira. Lankidetzaren komunitateetako kide batzuen partetik irregulartasunak edo kexak daudela ikusten bada, betebeharrak ez betetzeagatik diziplinako baja emateari ekingo zaio. Kontuan hartu beharko da kexen kopurua edo irregulartasunen larritasuna, eta horiek, Kudeaketa Batzordeak zehaztuko ditu kasu bakoitzean. Kasu hauetan, erabiltzaileak bere baja izenpetu beharko du eta ezingo du eskualdeko eremuetan berriro alta eman.

## 1. ERANSKINA

### ELKARLAN SORGUNEAREN PROGRAMARI ATXIKITAKO EREMUAK

#### 1. Hernaniko Florida kaleko 28 z.ko lehen solairuan dauden 102 m<sup>2</sup>

Eraikin hori Hernanin dago, Florida kaleko 28 zenbakian, eta hiru solairu ditu, hots, behe-solairua eta bi gehiago. Elkarlan Sorgunea lehen solairuan kokatuko da —erabat okupatu gabe— eta 102 m<sup>2</sup> izango ditu. Okupazioa 32-38 pertsona ingurukoa izan daitekeela aurreikusten da. Eraikinak eremu hauek ditu:

- Elkarlanerako espazioa (mahaiak, aulkiak, altzariak, armairuak...)
- Bi bilera-gela.
- Ikastaro eta ekitaldietarako aretoa.
- Aurkezpenetarako areto nagusia.
- Sukaldea/officea.

## HERNANIKO UDALA ETA ELKARLAN SORGUNEEN ERABILTZAILIEN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN HITZARMENA

Hernanin, 202\_ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (e)an.

### ELKARTU DIRA

Alde batetik, Hernaniko Udala, helbidea Hernaniko herrian duela (20120), \_\_\_\_\_, eta bere IFZ \_\_\_\_\_ izanik. Hernaniko Udalak \_\_\_\_\_ ren izenean eta ordezkartzan dihardu.

Beste alde batetik, erabiltzailea \_\_\_\_\_ NAN zk. hau duela \_\_\_\_\_ ondoko enpresaren izenean eta ordezkartzan diharduela \_\_\_\_\_, eta bere IFZ \_\_\_\_\_ izanik, aurrerantzean sustatzaile izendatuko dena.

Bi aldeek ekitaldi hau gauzatzeko erabateko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri eta

### ADIERAZTEN DUTE

a) Hernaniko Udalaren Elkarlan Sorguneen programaren helburua da, bere ekintzailtza-zerbitzuaren bitartez, gure lurraldera enplegua eta jarduera ekonomikoak ekarriko dituzten enpresa berriak eratu daitezela sustatzea, gure lurraldearen premia sozioekonomikoei erantzungo dieten ekonomia sozialeko jarduera berriak sustatzea eta pertsona sortzaileen, ekintzaileen eta enpresen sare bat abian jartzea.

b) Hernaniko Udalaren Elkarlan Sorguneen helburua eskualdeko ekintzaileei beharrezko baliabideak eskaintzea da, eta eskualdeko zentroen sare bat sortzea, ekimen publiko-pribatuaren bidez, eta horren bidez, eremu horiek erabiliko dituzten pertsonen eta beren ingurunearen arteko trukeak eta elkarlana bultzatuko dira. Adimen Kolektiboko eremu fisikoak izango dira, eta bertan, lankidetzako komunitateak sortuko dituzte eta denboraren banku baten bitartez ideiak, zerbitzuak eta ezagutzak trukatu daitezela sustatuko dute, eremu horiek erabiltzen dituztenen eta beren ingurunearen arteko lankidetzako ekonomia indartu dadin.

c) Hernaniko Udalak, Elkarlan Sorguneen eremuen bitartez, ondorengo zerbitzuak jarriko dituzte erabiltzaileen esku:

- Bulegoa mahai eta aukiarekin.
- Elkarlan Sorguneen eremu zehatzak erabiltzeko aukera: bilera-gela eta abar.
- Interneteko konexioa.
- Kopiagintza-zerbitzua.
- Elektrizitatea eta giro-tze-sistema.
- Instalazioen garbiketa- eta mantentze-lanen zerbitzu bat.
- Segurtasun-sistema.
- Enpresa-zerbitzuak: enpresa abian jartzeko eta finkatzeko informazio-zerbitzua, heziketa, tutoretza eta aholkularitza.
- Ekintzailtza soziala garatzeko programa: heziketa eta tutoretza.
- Dinamizazio-zerbitzuak: sarean lan egingo duten komunitate desberdinak sortzeko eta finkatzeko xedea duten jarduerak, lankidetzako proiektuen diseinua sustatzearen.

d) \_\_\_\_\_ enpresa-proiektuaren ordezkariak Hernaniko Udalaren Elkarlan Sorgune batean instalatu nahi du, eta \_\_\_\_\_ postu okupatuko ditu eremu horretan.

e) Enpresa-proiektuaren ordezkariak sarrera-betebehar guztiak betetzen ditu eta deialdiaren oinarrietan egonaldi-rako ezarritako betebeharrak betetzen ditu.

f) Bere erantzukizunpean aitortzen du eskainitako datu guzti-guztiak egiazkoak, zehatzak eta osoak

direla eta eguneratuak daudela, eta eskatzen du eman diezaiotela idatzi honen kopia bat bere erregistro-datarekin.

Eta beraz, **HITZARTU DUTE**

**LEHENA.-** HELBURUA. Hernaniko Udalak erabilera Hernaniko Elkarlan Sorgunean, Florida Auzoa 28 zenbakian, 20120. Bulego hau Hernaniko Udalak izendatu dio sustatzaileari, hautapen - irizpideekin, proiektuaren ezaugarriekin eta eremu horrek duen sarera-eskaeraren mailarekin bat etorritz. Arestian aipatutako zerbitzu guztiak erabili ahal izango dituzte erabiltzaileak.

**BIGARRENA.** - **IRAUPENA.** Erabiltzailea sarrera-programaren barruan sartuko da Elkarlan Sorgunean, eta horrenbestez, hitzarmen hau indarrean egongo da eguna arte.

**HIRUGARRENA.** - **ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.** Hitzarmen honetako baldintzak, eskubideak, betebeharrak, zehapenak eta gainerako oharra deialdiaren oinarrietan eta barne-erregelamenduan zehaztuta datoz.

Erabiltzailea behartuta dago une oro deialdiaren oinarrietan finkatutako baldintzak eta betebeharrak, barne-araudiko arauak eta eremu horren eta batzarraren kudeatzaileak ezarritako baldintzak betetzera, betiere Elkarlan Sorgunearen kudeaketa, administrazio eta funtzionamendu orokorrari begira.

Hitzarmenaren indarraldia amaitzean edo alde batek hitzarmena desegitean, Elkarlan Sorgunearen postua eskaini zioten baldintza berdinetan utzi beharko du erabiltzaileak. Horrela egiten ez badu, kalteak eragin dituen erabiltzaileak zuzenean eta bere kontura egin beharko ditu beharrezko konponketak.

**LAUGARRENA.** - **KONTRATUA DESEGITEA.** Hernaniko Udalak beretzat gordetzen du hitzarmen hau bere aldetik desegiteko ahalmena, baldin eta erabiltzaileak ez baditu betetzen agiri honetan, erregelamenduan, deialdiaren oinarrietan edo aplikagarri den edozein arauditan aurreikusitako baldintza guztiak.

**BOSGARRENA.** - **PUBLIZITATEA.** Erabiltzaileak bere jakinarazpenetan, txarteletan, webguneetan eta gainerako hedabideetan agerrarazi beharko du Hernaniko Udalaren Iturola Elkarlan Sorgunean instalatua dagoela. Halaber, Hernaniko Udalak bere publizitatean instalazioaren berri ematea baimenduko du, baita erakundearen publizitate-informazioan enpresei buruzko oinarritzko informazio ez-konfidentziala barneratzea ere.

Eta egoki diren ondorioetarako hala ager dadin, bi aldeek ale hirukoiztuan sinatu dute hitzarmen hau, burualdean adierazitako toki eta egunean.

Hernaniko Udala

**Lege oharra: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko.** Hernaniko Udalak jakinarazten dizu, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, eman dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatueta sartuko direla. Fitxategi horien helburua da Udak kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu -dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu eta kontra agertu, jo ezazu gure helbidera.

## ESKAERA-INPRIMAKIA

### 1. ESKATZAILEAREN DATUAK

Eskatzailea			
Izen abizenak		NAN	
Sexua		Jaiotze eguna	
Jakinarazpenetarako helbidea		PK	Herria
Tel.1	Tel.2	Helbide elektronikoa	
Euskara maila:	a) Euskaraz ongi moldatzen naiz (ahoz eta idatziz)	b) Ulertzen dut baina ez dut euskaraz hitz egiten ezta idazten ere	c) Ez dakit euskaraz
Egoera laborala		Ikasketak	
Proiektuan parte hartuko duten pertsonen kopurua			
Pertsona honek duen esperientzia edo ezagutza teoriko-teknikoa aurkeztutako proiektuaren sektorean			

## 2. PROIEKTUA BULTZATZEN DUTEN PERTSONEN DATUAK (20 puntura arte)

Eskatzailea 2			
Izen abizenak			NAN
Sexua		Jaiotze eguna	
Jakinarazpenetarako helbidea		PK	Herria
Tel.1	Tel.2	Helbide elektronikoa	
Euskara maila:	a) Euskaraz ongi moldatzen naiz (ahoz eta idatziz)	b) Ulertzen dut baina ez dut euskaraz hitz egiten ezta idazten ere	c) Ez dakit euskaraz
Egoera laborala		Ikasketak	
Pertsona honek duen esperientzia edo ezagutza teoriko-teknikoa aurkeztutako proiektuaren sektorean			

Eskatzailea 3 / Solicitante 3			
Izen abizenak			NAN
Sexua		Jaiotze eguna	
Jakinarazpenetarako helbidea		PK / CP	Herria
Tel.1	Tel.2	Helbide elektronikoa	
Euskara maila:	a) Euskaraz ongi moldatzen naiz (ahoz eta idatziz)	b) Ulertzen dut baina ez dut euskaraz hitz egiten ezta idazten ere	c) Ez dakit euskaraz
Egoera laborala		Ikasketak	
Pertsona honek duen esperientzia edo ezagutza teoriko-teknikoa aurkeztutako proiektuaren sektorean			

Eskatzailea 4	
Izen abizenak	NAN
Sexua	Jaiotze eguna



Jakinarazpenetarako helbidea		PK	Herria
Tel.1	Tel.2	Helbide elektronikoa	
Euskara maila:	a) Euskaraz ongi moldatzen naiz (ahoz eta idatziz)	b) Ulertzen dut baina ez dut euskaraz hitz egiten ezta idazten ere	c) Ez dakit euskaraz
Egoera laborala		Ikasketak	
Pertsona honek duen esperientzia edo ezagutza teoriko-teknikoa aurkeztutako proiektuaren sektorean			
<b>Eskatzailea 5</b>			
Izen abizenak			NAN
Sexua		Jaiotze eguna	
Jakinarazpenetarako helbidea		PK / CP	Herria
Tel.1	Tel.2	Helbide elektronikoa	
Euskara maila:	a) Euskaraz ongi moldatzen naiz (ahoz eta idatziz)	b) Ulertzen dut baina ez dut euskaraz hitz egiten ezta idazten ere	c) Ez dakit euskaraz
Egoera laborala		Ikasketak	
Pertsona honek duen esperientzia edo ezagutza teoriko-teknikoa aurkeztutako proiektuaren sektorean			

### 3. PROIEKTUAREN DATUAK

<b>Proiektua</b>	
Proiektuaren izena	
Jarduera	Sektorea
Proiektua zein fasetan aurkitzen da? a) Ideiaren garapenean b) Negozio-plana eginda c) Enpresa sortuta	Negozio-plana aurkezten al da? ¿
Proiektuaren izaera juridikoa zein izango da?	Proiektua zein herritan finkatu eta garatuko da?
Proiektuaren deskribapena: zertan datza? Zein jarduera, produktu edo zerbitzu eskainiko dira?	
Azaldu proiektuak eta/edo taldeak gaur egun dituen behar edo erronka nagusiak zeintzuk diren:	

<b>Enpresa (Sortua balego)</b>	
Izen soziala	Izen komertziala
Jarduera	Sektorea
IFZ	Izaera juridikoa:
Tel.	Helbide elektronikoa
Helbide soziala	Helbide fiskala
Enpresaren deskribapena	

4. PROIEKTUAREN NEGOZIO PLANAREN BALORAZIOA

Zein da zuen negozio ideia-aren funtsa? Enpresaren misio, bisio eta baloreekin bat dator?

Merkatuko zein beharrei erantzuten dio? Zein xede talderi dago zuzenduta zuen produktu edo zerbitzua?

Nola identifikatu da behar hori? Merkatuko analisirik egin al da?

Zein da negozio ideia-aren balio erantsia? Zer da zuen sektoreko gainontzeko enpresetatik bereizten zaituztena?

Zer nolako baliabideak eta inbertsioa behar dituzue negozio ideia garatzeko? Zenbat denboratan aurreikusten da inbertsioa berreskuratzea?

5.

## 6. PROIEKTUAREN BERRIKUNTZA ETA INPAKTU SOZIALA

Bultzatzen ari zareten proiektua berritzailea al da (helburu, prozesu edo emaitzei dagokionez)?  
Baiezko kasuan, zein zentzutan?

Bultzatzen ari zareten proiektua bokazio eraldatzailearekin jaio al da? Inpaktu soziala bilatzen al du?  
Zein zentzutan?

Zeintzuk dira proiektua martxan jartzeko garaian izan dituzuen motibazioak?

Proiektuak kontuan hartu al du LURRALDE JASANGARRITASUNA (eskualdearen nortasunean sakondu eta bere izaera zaintzea, eskualdeko baliabideen erabilera...)?

Proiektuak kontuan hartu al ditu ELKARLANA eta ELKARTASUNA (sare-ikuspegiarekin lan egitea, elkarlanerako jarrerak sustatzea, eskualdeko nahiz eskualdez gaindiko egituren eta herrien artean harreman sendoak eraikitzea...)?

Proiektuak kontuan hartu al ditu BERRIKUNTZA eta SORMENA (berrikuntza soziala eta berrikuntza teknologikoa sustatzea, teknologia garbia eta irekia erabiltzea, sormena, malgutasuna eta pentsamendu kritikoa ikuspegitik...)?

Proiektuak kontuan hartu al du GOBERNANTZA DEMOKRATIKOA ( barne parte-hartzea eta gardentasuna kudeatzea, hiru erpinetan oinarrituta: politikoa, ekonomikoa eta soziala)?

Proiektuak kontuan hartu al ditu GIZA-AURRERAPENA ETA ANIZTASUNA (pertsonek eta komunitateak subjektu gisa hartuta, gizarte inklusibo baten alde lan egitea: gizarte parekidea, kolektibo guztien autonomia eta ahalduz, desberdintasunen gutxitzea...)?

Proiektuak kontuan izan al ditu HIZKUNTZA ETA KULTURA (euskararen balio erantsia etengabe elikatzea, kulturen elkarbizitza...)?

7. ELKARLAN SORGUNEAREN PROIEKTUAREKIKO OSAGARRITASUNA  
COMPLEMENTARIEDAD CON EL PROYECTO DE ESPACIO DE COWORKING

Zer ezagutzen duzue Elkarlan Sorgunearen proiektuaren inguruan?

Zer da proiektutik gehien interesatzen zaizuena?

Prest al zaudete Elkarlan Sorguneko komunitatean integratu eta bertako dinamika eta jardueretan parte hartzera?

Prest al zaudete denbora banku baten bitartez elkarlana sustatu eta kolaborazioak egitera? Hilabetean zenbat ordu eskaintzeko prest izango zinatekete?

Zein ekarpen egin diezaiokezue Elkarlan Sorgunearen proiektua eta komunitateari (ezagutzak, esperientziak, ideiak, kolaborazioak...)?

Zein da proiektuan parte hartzeko duzuen disponibilitatea (egunero, astean bitan...)?

8. OHARRAK

*AITORTZEN DUT, nire ardurapean, adierazi ditudan datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla. Idatzi honen kopia bat, erregistro datarekin, ESKATZEN DUT.*

*Hernanin, / /*

*Eskatzaileak*

**lege oharra: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko.** Hernaniko Udalak jakinarazten dizu, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, eman dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Fitxategi horien helburua da Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu –dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu eta kontra agertu, jo ezazu gure helbidera.

## Txartel elektronikoa eskuratzeko eskaera orria. EKINTZAILEAK

Izena	Abizen 1	Abizen 2
NAN zbkia	Jaiotze-data	Sexua
Helbide postala		
Mugikorraren zbkia	E-posta	

### Baimenak:

1. Baimena ematen diot Beterri Buruntza Udalak-i, Hernaniko Elkarlan Sorgunearekin lotutako informazio eguneratua nire e-postara edo/eta telefonora bidaltzeko.

### Hitza ematen dut:

- Goian azaltzen diren datuak zuzenak direla.
- Jasotzen ari naizen txartela ez diodala hirugarren bati utziko.
- Elkarlan espazioa arduraz erabiliko dudala, oinarriak eta barne erregelamendua errespetatuz.
- Elkarlan espazioa uzten dudanean egunean txartela itzuliko dudala.

Eta horrela jasota geldidada, behar besteko ondorioak izan ditzan, idatzi hau sinatzen dut.

Lekua eta data:

Hernanin, 20\_\_ko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_ (e)an

Sinadura / Firma

**Lege oharra: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko** Hernaniko Udalak jakinarazten dizu, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, eman dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatueta sartuko direla. Fitxategi horien helburua da Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu -dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu eta kontra agertu, jo ezazu gure helbidera.